

SED QUIA SUA

SEGUROLA



HIZKUNTZA HONEK ZER DIOEN ANTZEMATEKO SAIOA

erein

SED QUIA SUA

Hizkuntza honek zer dioen antzemateko saioa

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2020ko azaroan

Azaleko irudia:

Juantxo Egaña

Azala eta liburuaren diseinua:

Erein

Maketazioa:

Erein

© Iñaki Segurola

© EREIN. Donostia 2020

ISBN: 978-84-9109-655-9

L. G.: D 1130/2020





EREIN Argitaletxea.

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

SED QUIA SUA

Hizkuntza honek zer dioen antzemateko saioa

Iñaki Segurola

AURKIBIDEA

ESKAINITZA	9
amama bakarra bitartean, ez denboran	
AURRENEKO PARTEA: lau hitzaurreño eta aurkezpentzar bat	11
HITZAURREÑO-1 («non»)	13
<i>Nemo patriam quia magna est amat, sed quia sua.</i>	
HITZAURREÑO-2 («nola»)	15
E-estilo bixi-arina nekezturik./ Ustea, ezustea, hustea./	
Bectsolaria hil-astuntxo./ «Ezgauzaz-baigauzazko.»/	
Olgetan-benetan.	
HITZAURREÑO-3 («zertan»)	21
Ezdefinizio anarko-abertzalea./ Argi drone	
bat gabe./ Lurra behean, hizkuntza beherago.	
HITZAURREÑO-4 («nondik»)	25
Haitz-beheiti metafisiko batetik./ Olabezeta,	
Abitain-Alabier./ Eskola libre bat pendizean.	

AURKEZPENA («zer»)..... 29

Pentsamendu propioa geratzea./ «Iritzira, aliritzi.»/
 «Extinct.»/ Ez kosmetikoa, ez enbortua./ Segitzen dugu
 iritzia desmaskaratzen e-gogo eta hizkuntzatik./ On-
 gaitzek ez-ezik, buruak erasaten./ Bukaera hasieran
 zegoen./ Begiratzen diot zintzoki munduari, eta
 aitorpentxo bat egiten./ Munduan: beretikkeriarekin eta
 buruginki./ Iritzia eta epaia./ Ero-nahasmena H-M
 nahaspilatik: argigarri bat e-asuntotik./ M-H, H-M >
 MHera, MHTik./ Ez e-iritzirik, ez e-pentsamendurik./
 «Ez du izenak egiten izana.»/ Barandiren jainkoa
 neureago./ Indar eta Adur: beste ipuintxo bat./
 Desaurkezpena?/ Gogoa zer edo nondik norakoa den./
 Gogoa eta argia: gogoa argi?, argia gogo?/ Atsedena,
 Piarres Xarritonen gogoarekin./ Neke on bat:
 Aristoteles, Benveniste./ «Esaik.»/ Luzakin bat gogoaz
 eta gogoetaz./ Esan nahi^{3*}./ Egia ez, e-egia ez./ *La chute
 dans le temps*./ Hau ez da hizkuntza zaharra./ Eguneroko
 ogia: etimologia./ Bukaera, hasiera, mintzoaren odola,
 autolaguntza.

BIGARREN PARTEA: *the great transformations*..... 77

BAT: $G_1 > G_z$ 81

Hitz/gai kontrajartzea./ Gai↔gauza, tzeko↔a./
 «Asmoak gauzatzea», e-gogotik (h)ustezkotua./
 Gauzatzea ≈ ezgaitzea./ «Zer gaitik?»/ *Free will* gure
 gogotik./ Maitasuna, iraultza, ezina./ Natura, umeak,
 hizkuntza./ Drogatzea, cromlecha./ Joan-etorria
 Zulobeltzagaraino./ Litsak, birbitsak.

BESTEIA: DeD > D..... 118

Dena, den-a = den guztia./ Eztena: 'dena eta ez dena'./
 E-ontologia ezbaikaria./ Dena huxkeria da./ Non dago
 «(ez) dena»?/ Hats|hatz bat azpi-errealitateetan./
 Aurrenik foneman./ Meditazio hutsa?: e-meditazioa?/
 Meditaziotik yogara, Whorf maisu dela./ Musika,
 matematika./ Fisikan atzera berriz./ «Dena % 4,9 da.»/
 Harrespilera berriro./ Direnak eta ez direnak: gehiago

eta gehiago./ Zulo(beltz)aga-2./ «Gauzei bere izenez.»/
 Eszeptizismo ez-herrikoia./ «Naizena eta ez naizena.»/
 Teologiaren berrikuste edo berraditzea./ Feminismo ez-
 kirten bat?/ Konpotarik ez: dakeria bai gogotik./ 23
 izpiño.../ ...eta azkenki bat.

HIRUGARRENA: $J_1 > J_z$ 170

Bi zirriztuetatik ostera./ «Beak esan al dik?»/ Belarrak,
casus belli./ Harrapatu, agindu, azpiratu, moraldü./
 «Probatu eta jakin» → «jakin eta frogatu»./ Miraria,
 ezina./ Parazelso eta gu, eta beste batzuk./ Dachau-ko
 harria./ Harrespilari aditzera jarri gara./ Harritu, zurtu,
 urtu./ Oharrak azkenerako.

HIRUGARREN PARTEA: hitz batzuetatik noraino? 197

Etsi, osatu, akats./ Osasun, osagarri./ On₁, gaitz|txar./ Larri,
estu, artega, zoro, ero./ Samur, aiher, itsu./ Halabehar./
(G)une./ Gar|kar./ Iduri./ Behar₁, goganbehar./ Erruz./
Lor|lortu, neke|nekatu./ Nahi|behar₂|ahal, lotsa./ Agindu./
Barren./ Goiko, jaungoiko, txori|zori, jainkoilo./ Sorgin./
Sasi, baso, larre, asto./ Min./ Maite, laztan, lagun./
Lagunabar, arronter./ Musu, muin./ Argi₁, itzal./ Alu,
zakil./ Euskaldun, hededun./ Argi₂, adi, azti, sor./
Igerri|ikertu./ Jakile, jakintsu./ Atsokeria./ Zuhur./ Herri,
hiri. bazter./ Lau./ Zotz, zain|sirats./ Erdietsi, galdu-gorde,
bide./ Gozatu, asmatu./ Omen, xelebren, noski./ Hats./ On₂,
sen, baita, ate, hoki, gontz, hozka, hatz, bost|bat./ Lekutu,
alderatu, mende, garai./ Bihotz./ Menderatu, eskuratu,
eskolatu, hezi, ikasi, jantzi./ Erdi, beste./ Zatar|zakar,
itxura, itsusi./ Eder, polit, emeki./ Ikusgarri, dotore./ Izen./
Goragarri./ Begi, beharri./ Gorputz|arima, oreka./ Saretu,
sotil./ Armonia, argudio./ Gorri, bipil./ Egiteko, ezegiteko,
opor./ Egin, sortu./ Aurre, atze, atzendu, ostendu./ Jatorri,
etorki./ Baratzte, mairu, jentil./ Gizon, umao./ Tratu, saldu,
dirutu./ Atsegin-sari./ Jakin./ Alegia./ Argizagi./
Gutun|kut(t)un.

ERANSKINA: irudiak eta haien esan-ahalak 315

*Baxili Goenaga nere andrelagun Garbiñeren amonari
andrelagunari
aitari*

Gure gurasoen gurasoek, askok, erdaraz *si-ta-no* zekiten esaten hutsik. Nere aldetik bestelakoak gehiago dira, erdara gehiagodunak; bi Donostian neskame, bat Hondarribian mikelete...: holakoxe aurrekariak dauzkat gorputzeko uretan.

Beste aldera nator. Baxili Goenaga zen errezildarren umea. Si-ta-no-ko garbia. Konpondu-ezinen batek Alkizara bota zituen eta handik Beterrira zuzen. Haren semearen alaba zaharrena Beterritik jauzi eginez kokatu da, zait, Azpeiti zail honetan; alde zaharretatik Errezilkume den herri honetan. Borobila itxi da, edo osatu, errezilientzia espiritual batetik.

Interpretazioa: zakarretik eta gogorretik zurira eta epelera dira aiton-amonon mugimenduak, gora-nahi eta behera-behar batek aldi berean bulkatuak (gora giza-mailan, behera lur-mailan). Zuriak, ordea, zurikeriara egin ohi du bidea, eta epelak txepelera. Orduan, badago atzera-beharriz zailera eta gogorrera itzultze bat, itzultze transgenerazional bat. Giharraren bilatze bat. Eta giharraren gozotasun sano ez-antzeztu batena.

Si-ta-no-ko jende hark asmatutako esan-modua da *ez-si-ta-ez-no*. Baxili Goenagaren harikoek. Liburu hau da *ez-si-ta-ez-no* idatzia. Nere bi amamek bazekiten *si-ta-no* eta gehiago, eta andrelagunaren amonagana jotzen dut hemen. Lagundu!

[AMAMA BAKARRA BITARTEAN, EZ DENBORAN]

Eta amona bakarrarekin nahikoa dut. Ez ditut 80 behar. (Artea eta bitartea hartzen dira aintzat hemen, baina Denbora ez, neurtzeko denbora hori ez. Eta denbora ahaideen bitartez neurtzeko banako edo mailarentzat aniztasun gehitxoago erakustea ere ez legoke gaizki, amama-jendeari gehientasun eta bikaintasun absolutu bat eman beharrean; adibidez, Txirritaren era hau ez da desagokia, ustez oso aspaldiko garaiaz ari zelarik honako hauxe jarri baitzuen bertso baten hasieran: «gure izeben amen amonen/ osaben aiten aitonak».)

Hau ez da *dena* jakiteko. Hau da *direnak eta ez direnak* aditzeko. Hizkuntzari aditzeko. Eta adituz sendatzeko. Baxilirenean esaten zen: *miñ au erregek balaka* [= baleuka!]; bat minez zegoenean, mina behar-zuen-tokira lekualdatzeko bidea, otoitza, mantra. Hitz gazi horiek eta beste askok eta askok gozaten gaituzte eta sendabide politiko-esistentzial batean jartzen orain.

Ni banaiz (xeoxe). Gero hutsarte bat dago; ez harri eta ez zur. Haratago amona-ilobak. Hauen ezagutza eta aitortza egin beharra zegoen atariko atean.

Liburu hau hamabost bat urterekin hasi nintzen idazten. Orduan ez nekien hori; orain badakit. Nerabexaro gozakaitz baten erdian. Usteak erdia ustela izaten du-ela aditu eta pentsatu nuen hizkuntza honek zerbait zioela eta zioskula. (Amama euskararen maitasuna irabaztera uste dut jarri nintzela orduan, beste maitasun ukatuez etsiturik. Zerbait esaten zidan/zioskuna irabaztera, alegia, ezer esaten ez zidanaz atzendurik.)

AURRENEKO PARTEA
Lau hitzaurreño eta aurkezpentzar bat

HITZAURREÑO-1

(«non»)

Astoa langan bezala nago. Gaude. Ez aurrera eta ez atzera. Hala ere, hanka-jokoa ateratzeko garaia da (zertarako garaia den, hori gogoak agintzen du: garaia bera ixilik egoten da). Hanka egin, lekutu, baina bertara: hanka-joko zaila, eta egin beharra.

Astoa metafisikoa da. Langa ez.

Hanketatik ez gaude gaizki. Anatomia espiritualera nator orain. Hankak: kinkirrinean ibiltzen asmatu behar dugu, baina etortzeko, bertaraino irteteko. Ez aurreratu, ez atzeratu, bai bertandu. Arnasa ere badabil: berotzen, betetzen, estutzen, baina ibilian. Bihotzak jotzen du, ez beti batean. Buruan dago nahasmen multipolarra (hesteetan ez-ezik), zeren buruak baikaitu nahasten multipolarkiro: horretarako jarri zigutela dirudi lepo-gainean deabru zakilek eta jainko aluek. (Esan liteke nahasmen hori apaingarri hutsezko desoreka batekin agertu eta/edo estali izan dela, etxe-teilatuaren eta gizaburuaren bateratzea baliatuz; ale bat aukeratu behar, eta A. Zavala, Txirritaren liburuan, Altzako Gazteluene baserria ahotan: «ainbeste euskaldun baserrik bezela, tellatuaren egal bat bestea baiño luzeagoa du, txapela jantzi oi dan bezela».)

Hizketara nator, buruko hizketara, buru-hizketara. Ik lepotik gora itzegiok: *hala esaten zen gure euskaran, adierazteko ezbenetan, axaletik,*

sentitu gabe hitzegitea, eta eskuarki bakeagatik, adiskidetzeagatik, konpontzeagatik. Hizketa merke eraginkorra. Gehiegi jardun dugu lepotik gora, eta eten bat daukagu orain espirituala eta emozionala. Interakzioan hutsegiten da. Aspertu egin gara, eta Aspergertu. Hitza lepoan hartu eta segi aurrera. Ederki: baina nora?

Ezin buruturik gabiltza geure buruarekin: geure *burua* ikusten dugu, edo ez; geure *burua* maite dugu, edo ez; geure *buruarekin* gaude, edo ez; eta abar. Bihotzik edo ahorik edo hesterik edo besterik ez balitz bezala.

Budakume merke (mende)baldartuaren gisan hasi gara, baina luzaro gabe bukatzekotan.

Geure buruarekin buruz buru jarri eta izutzen gaituzte sartu dizki-guten ideiek, odolbildu espiritualek. Izutzen gaitu gatzatu/morokil ideologiko industrialak, preindustrialak, aurrepreindustrialak: «gauzak dira gauzak»; «gauzak diren bezalakoak dira». Nahikoa da!

Nemo patriam quia magna est amat, sed quia sua.

Seneka. *Sed quia sua*: baizik-eta berea delakotz. Edozein xoriri eder bere... kantua. («Nehork ez du bere zera maite haundia delakotz, baizik-eta berea delakotz.») Xalbador, guka, *sed quia nostra*: «horiek hola ni euskarari nago bihotzez ta gogoz,/ ez ederraren gatik bakarrik, bainan gu-rea delakotz».

«Ondo komunikatuta» egon beharra omen dauka toki batek. Holaxe, absolutuki. Ez da esaten zerekin behar den egon ondo komunikatuta, eta esan egingo dugu: hiriburu, munduburu, superlekuekin. Eta ez da esaten —ez duela uzten gaurko fedeak— toki batek, herri edo auzo edo nazio batek edo zernahik ondo komunikatuta egon behar duela nagusiki bere buruarekin edo, hobeki, bere baita osoarekin; arin, eroso eta merke egon behar duela toki batek komunikatuta bere buruarekin eta bere zera guztiarekin: bere baitako joan-etorri eta harat-honatekin.

Zer moduz?: hementxe. Barkatu: zer moduz?: hementxe nahi.

Ez aurrera eta ez atzera. Astoa langan bezala.

HITZAURREÑOIA-2

(«nola»)

E-estiloak estilo bixi-arina behar omen luke. Halaxe nago aditua. Ikusia?

Oharra: e- erabiltzen dut maiz euskal ez idazteagatik gehiegitan, aurre-rakarga haundia jartzen baitio euskal horrek edozeri. Euskal hori hainbestetan errepikatzeak nazionalergia eta txistulariergia bihurtzen du edozer.

[E-ESTILO BIXI-ARINA NEKEZTURIK]

Honek e-estilo horretan idatzia emango luke ondoena, baina motz gelditzen naiz ni; hau da: luzeegi, astunegi, egituratuegi. Desegituratzeko ahalegina eginda ere, akademikoegi, hil-astunegi. (Gizabanako desegituratua izan naiteke, ez da hain zaila, baina gogo desegituratu bat beste koska batean dago.) Ezin dut, ezin dugu: bixi-arinetik hil-astunera amildu gara. Eskolak hondatu gaitu.

(Zezenari begira jarri dira batzuk; uhinei beste batzuk. Bagoaz itsaso metafisiko batera eta surflari egiten gara hor; bagatoz larre espiritualera eta errekortarien erara jartzen. Nondik etorriko, zer joera aterako. Bixi-arin. Baina ez: zezena irendua aurkitu dugu larrean, eta itsasoa zapala. Suharetik eta haserretik peto. Ez dago dantzarik. Dagoena «ibilbide» bat da, eta lasaitasun gehiegi; jardunbide bat, prozedura bat, algoritmo bat gure gogoan, gure gogoetetan.)

[USTEA, EZUSTEA, HUSTEA]

E-estilo bixi-arinean ustea dago, eta ezustea dago. Ondo, baina halaber dago *hustea*. E-gogoan, e-gogoetan, uste-huste dialektika edo dantza-jauzia dabil. Adibide bat: psikiatrizatuen (zoroen, nahasien: hautsien) kolektibo borrokalari edo kritikiko batzuekin daukat aspaldian harreman jarraikia (birtuala, halabeharrez).

Nere ustez eta nere hustez, eta ezustez ere bai pixkat, e-estiloa bada alde zoro-nahasia, baina ez erabat, zeren alde zuhur-sendoa ere bai baita, eta bi iturri horietatik edatera jarria dago. Bi aldeetan ibili beharra daukagu noiz-nolakoan, ugaraxoaren triskea lako ibilkeria batean: «lehorrerean hezera» (halaxe dago idatzia euskaraz 16. mendeaz geroztik); zuhurtzia lehorretik zoramen hezera, eta alde erantzira: zoramen lehorretik zuhurtzia hezera. Hortik nere zoro-nahasiakilakoa.

Segitzen dut adibidearekin. Zoro-nahasien kolektiboetakoak nazkatu samartuak daude «autoestima» izeneko fetixearekin; «autoestigma» delakoarekin erantzuten dute gaitzaldetik, borrokakizunetik (oi, ezustea!); proposatu diet ustea gauzaeza dela, ezustea ez dagoela gaizki, baina hobeko luketela hustearen bidetik jotzea (beste hitz batzuekin, jakina): izate (izan-uste) baten tokian (des)egite bat jartzea; «ni ez naiz gaiztoa: ni ez naiz pelikula honetako gaiztoa» aldarri egin eta errugabetze bat egikaritzea (erru-uste hustu edo ezeztatzea) hobea dela, eragileagoa dela. (Egia esanda, neure baitan –neure baitako sendabidean– probatua neukan aldarri horren ahala eta ia mirarizko indar askatzailea.) Autoestima (ustea); autoestigma (ezustea); errugabetzea (hustea). Ondo hartu didate zorotzakoeak. Adibide bat zen; adibide zail bat zen. Hustezko zera hau estilo (e-estilo) jauzkari, ezbaikari, bixi-arinaren ume delakoan gelditu naiz.

Bidetik baztertzen naiz pixkatean, baina ez asko. Zoro-nahasi batek idatzitakoa ikustea egin dut oraintxe (Feisbukeko talde itxi bat da, haietako baten laguna naizelako uzten didate muturra sartzen; zoro-friendly moduan naukate); hala dio: «nik ez dut behar guztiaren ideia bat, sistema bat, edo metodo bat osotasunaren ideia batera iristeko; behar dudana gauza bakarra da jardute azkengabe bat, ibiltzeko bide azkengabe bat». Iruzkin hauxe jarri dut: «badu horrek zerbait ukitzen duena, ukitzen nauena barren

samarretik: 'ez guztiaren ideia bat, baizik-eta bide azkengabe bat ibiltzeko'. Ez dakit, baina iruditzen zait zerbait ba ote dagoen hor oso egiazkoa. Eskerrik asko». (Ahal bezain xuxenenik gaztelaniatik itzulirik.) Bidera nator atzera. (Bide azkengabera?) Baztertu ere ez naiz izugarri egin: ideia osoaren aldean bide bat –azkenik gabe ibiltzeko bide bat– badakit e-estilo gure honen lagunago dela. Gatozen uste-huste eta gainerakoetara.

[BECTSOLARIA HIL-ASTUNTXXO]

Uste-hustezko dantza hau esatearen eta ez esatearen arteko jolasaren heintzuan dakusat. Eta koplak zaharretako zera dago hor. Esan-gordean aritzea; Lekuona eta abarregandik. E-koplaria bai, baina bertsolari gurea, garaikidea, ez da gurea. Gutarra bai, oso-oso gutarra, baina beste «gu» batzuen. Hil-astundua dago arrunt. Bectsolaria da; BECtsolaria, alegia. Exhibition (gixenetik) adina Inhibition (giharretik). Usteen esanera dabil bectsolari ez-gurea (uste potoloetan pototo eginez behin eta berriro), eta noizbehinka ezusteren bat erakusten du; hustea da atzendu zaiona. Betekada espiritual itzel batetik oka eginez bezala ari da. Bere buruaren gainjartzaile (sic, *n*-rekin). Ahots bat entzuten da orain, profetikoa, aspaldikoa (ez Xalbadorrena, baina Xalbadorrek 43 urte zituenekoa): bertsolaria, aditzaileak hondartzan utzi eta atzeraka doa itsasoari bizkarra emanda, eta uretan murgiltzen da ezkutatzearaino, eta mintzo zaigu hondartzara datozen uhinen urratsean. Honaino ahotsa. Bectsolaria ez da ezkututzen, urtzen, uhintzen. Gorputz fokuratu bat da, eta aski du atergabeko txalo-jasaren melatuarekin. Hil-astuntxo. Eskola gehitxo.

Uste potoloetan pototo. Aspaldiko bertsolari askotxok predikari bikain-aurkien predikuak zituzten bertsotan zabaltzen. Oraingo bectsolariak «bertsozientzia» egiteraino amildu dira, eta zientziaren eta zientzialarien bufoi izatea dute maite: dakitenen/dezaketenen pailakantari. Ez ikerketa ezjakinarenak (nola ba?), baizik-eta jakinketa indarreangoarenak (ezinbestean). Urrun gelditzen da bertso-koplarien (axaleko) deskoherezia ez-baikari hura. (Horrek azpian zeramakeen, nonbait, barrengo koherentzia bat koplexuagoa; orain koherentzia hori axalekoa eta –zientifikoki– tribiala bihurtu da.)

E-estilo bixi-arina estilo jauzkari bat da, esanda dago. Ezbaikaria. Ezari bezain baiari emana. Jauzteka dabil jardun ulergarriaren eta ez-uler-garriaren artean. Argi-ilunen eta gau-egunen abaro bikoitza harturik. (Osoa izan uste; holistikoa izan nahi.) Gauzak argiegi esan ezkerero, ez dira aditzen; ilunegi esan ezkerero ere ez; tarteko zerbait behar da, noiz batera eta noiz bestera etzanaz.

[«EZGAUZAZ-BAIGAUZAZKO»]

Hitz «filosofiko» bat sartuko dut tartetik: ezgauzaz-baigauzazko. (Hitz filosofikorik ez dago berez. Holakoak, holakotzat joak, espekulazio batek –«begiratze» batek, ez «entzute» batek– izanaraziak/lizateraziak dira. Beren ahalaz goragotik zukutuak dira esan-behar gotor batek hartaraturik. Hor eroriko naiz.) Ezgauzaz-baigauzazko bette-dottore hori alemanezkoa edo sanskritozkoa balitz, honuzkero galanki zabaldua zegokeen mundu argitu jakiundezkoan barrena. (Edo On Joxemiel Barandik harrapatu balu, jakina, baina... ez, ez: ondo pentsatu ezkerero, izaki-gurtzaille eta izaki-asmatzaille bipil hura bai-gauzekin edo ez-gauzekin molda zitekeen ondo, baina ez ezbai-gauzekin.) Hitza 17. mendean agertzen da idatziz, Haranburu saratarraren Debozino eskuarra, mirailla eta orazinotegia deritzan liburuan. Hala dio: hitz ergelak eta ezgauzaz baigauzazkoak. Ez da ongi aditu hitz hori. Liburua atera eta mende-erdi pasatxora egindako beste argitaraldi batean hitza kendu eta bere tokian burugabeak jarri zuten. Atzendua edo galduxa izango zen ordurako. (Galera eta atzentzea oso ordukoak eta betikoak ditugu, eta neurriz kanporakoak.) «Hitz ezgauzaz-baigauzazkoak» izango ziren, beraz, hitz txoroak, funsgabeak, badaezpadakoak. Ohar bat: lotsagabea ez da, izatez (esatez bai, baina ez izatez), lotsarik batere ez daukana, baizik-eta behar lukeen baino (askoz) gutxiago daukana; burugabea ere, orobat, behar baino (askoz) buru gutxiago daukana da, eta nola buru-behar hori oso handizkatua dagoen hemen eta nonahi, ba behar dugu burugabetik ere erruz, aseegiak baikaude lepotik gorakoz eta gosegiak lepotik beherakoz. Eta behar den hori dateke «EZgauzaz-BAIgauzazko», eta orobat dateke «BadaEZpadako»: baiari bezain ezari emanak; oso-holistikoagoak. Era ezbaikarian: dena eta ez dena:

bietatik aditzen delarik. Olgetan-benetangoa ere ez dabilke oso urruti hortik (hau berehalaxe aterako zaigu: ikusten nago).

Jardun ideiak eta fedepotoloari iskintxo egiten dio e-gogoak; iruzur eta laumutur egiten dio Santa Koherentziari. Beti bere batean, beti bere betean: zer da hori? Dantzan eta hanka-geldian: nolatan?

[OLGETAN-BENETAN]

E-gogoak maite du *olgetan-benetan* jardutea. (Ez dut esan nahi «adar-jotzea» edo «ziri-sartzea», zeren horiek umore motz ia turistiko baten heinean ageri baitzaizkit.) Olgetan-benetan. Olgeta hutsak nekatu egiten du eta beneta hutsak nazkatu egiten du. Benetakoegiak sinetsia izatea eskatzen du, dena egiazat hartzea, eta lortzen duena da askok ezertan ez aintzakotzat hartzea, askonahiak, agerikoegiak, sortzen duen atzerakadagatik; olgetakoegiak ez du eskatzen dena egiazat hartzea, eta lortzen duena da askok dena gezurtzat hartzea, arraileriak dakarren irria eraman ezinez. Olgeta-benetakoak lortzen duena da entzuna izatea, olgetan edo benetan ari den asmatu ezinak hartaraturik eta «agian egiaren bat ariko duk botatzen pailazo hori». Eta garrantzizkoagoa: ez dago beneta hutsean deus zulatzerik, harrapatzerik, argitzerik; jardun zapalegia da, koskarik gabea. Orduan zer?: oraintxe benetan eta oraintxe olgetan? Ez: olgetan-benetan, ezin bereizizko moduan. Zein baita arte goren-gorena. Gogozko errazkeria guztien kontrakoa. Azkue (1925ean), idazle batzuek ari dela: «olgetan-benetan ta ezarian-baiarian on andia egin lekioe erriari». Bai jauna!

Jardun ustez serioena ere, nahiz dela serio-beltza eta orobat serio-zuria, zati haundi batean da olgetan-benetangoa, zeren, munduan gehiena egiten duenak «hil arte bizitzea» egin ohi duen modutsuan edo ezmodutsuan, edo zelako hitzezko jardunetan gehiena egin daitekeena baita hizkuntzaren batean/batekin solas eta jolas egitea, dela arrunki eta arinki, edo dela astunki eta berezituki (more mythologico/theologico/philosophico/mathematico...). Hemen behintzat jakinaren gainean —eta eginahalean!— ari gara olgetan-benetango solas-jolasean, zeren erlijioaren, zientziaren eta bestelako

jakin-uste serio asmogogordunen ezaugarri berezkoa baita horretaz –beren jardunaren izate solasjolaskoiaz– ez jabetzea.

Kixotearen liburuan, euskalduna («Don Sancho de Azpetia») omen da Kixotea aintzakotzat hartzen duen bakarra. Olgetan-benetan aritze-agatik/bizitzeagatik, seguru asko.

Liburu honek olgetan-benetan behar luke gehienbat, baina ez dakit. (Pailazokerian ez amiltzea litekeena da, baina seriotasunari ihardukitzen zaila dago hagitx.)

HITZAURREÑOIA-3

(«zertan»)

Gibelasmo?, gibelondo?... ez: bihotzondo politiko bat ere badu liburu honek. (Apokaliptikoa izan behar zuen?: apolitikoen apopilo izan behar zuen?: zer izan behar zuen?) Liburu hau da anarko-abertzalea. Bai, jaunak eta andreak. Gaur atzendua dagoen zerbait da. Fundatu nahi da, bide batez, anarko-abertzale izate berri bat; zaharra baino argiagoa, esplikatuaz aditu nahi duenari, aditzen ahal duenari, edozeini, *anarko* eta *abertzale* ez bakarrik sinergikoak: sinonimoak ere badirela. Atzendua zegoen: atze-aurrendua ikustea komeni.

[EZDEFINIZIO ANARKO-ABERTZALEA]

Abertzale izatea da, ipar-ekialdeko euskaljendeari ikasitako definizio edo ezdefinizioetik, hauxe: lurrarekiko eta hizkuntzarekiko atxikimendua, eraspena edo, hitz politikoagoz esanda, maitasuna. Anarkotasuna (ez «anarkismo» deritzan dotrina extu fedepotoloa) da boterearekiko ez-maitasuna: ez lurra eta ez hizkuntza dira goiko ezerk sortuak, ez ezein goi-aginte edo aginpidek moldatuak. Lurrak ez du guraso ezagunik (gurasoak dituen lurraldea da) eta hizkuntzak ez du jaberik, eta da –aditu ondo!– herri ezjakinaren asmakaria (literaturginek eta akademikoek kudeatzen dutena letrakuntza da; letra-kuntza: ez hitz-kuntza).

Aukeratzan ahal genuela beste joera bat errazagoalegingarriagoa? Ez: mundua ez da erraza guretzat, eta gu ere ez gara errazak munduarentzat.

Beste gauza bat erraza ez dena: ordezkari bat ez bihurtzea urdezkariz zeri bat azkenerako (eta aurrenerako ere hortxe nonbait).

Ez gara ari ildo politiko batez, baizik-eta *dildo* politiko batez. (Hau ez da hitz-jolas hutsa, zeren jolas hau zabalagoa baita, ez hitzezkoa bakarrik, eta badu gainera bere azalpena: herrizalea herrizuloa da, eta zalea zuloa denean, ondo hartzen du *dildo* politiko bat. Bestalde: politikan bideak daude, edo bidezidorrak gehienez ere, baina ildo hor, ideologoen goldeak egindako ildo, estuegia gelditzen da beti.)

Parentesi bat: Sarasolak, Ibonek, behin (90eko hamarkada zen, 20. mendea) definitu ninduen «anarko-poetizante» moduan. Hitzak definitzen (ixten) eman du mundualdia hark, eta jendea definitzen ere beharbada ez da txarrena izango; hargatik hartzen dut aintzakotzat bere definizioa, zeren hain da definizio zabala non oso gutxi definitzen duen, nauen. Baina bai, ixo: tankera pixkat emateko balio du. Hau atera dut hemen ez ezkutatzegatik bakoitza beretik mintzo ohi garela: jeniye daukat nik holakoxea, zain zahar batetik edana, eta orduan erraza da neretzat jatortasun anarko-abertzale batean laketzea, eta hura fundatzea edo birfundatzea bera ere bai. Honaino iruzkin parentesiduna, ez oso hesiduna.

Parentesi bi: oraintxe euskaljakintsutzako baten upilako susterbakokeria edo ezjakinkeria harro bat irakurri ondoren, jabetu nahiz behingoz zer esan nahi duen «euskara da gure territorio libre bakarra» esaldi ospedunak: edozer nolana hika egin/idatz litekeela euskaraz (eta euskaraz bakarrik). Eta ez dut goretzi nahi territorio ez-aske edo loturik. Hola ezin liteke ulertu ezer. Poetok, mesedez: euskara ez da lurralde bat; ez dauka horrekin zerikusirik, zerentzunik eta zeraditurik.

Liburu honetan hizkuntzatik ari gara. Mundutik baino gehiago bai behintzat. Edo gauzetatik baino areago. (Esana eta izana nahasten eta sartzitzen diren eremu mixteriozko horretatik eta horretarantz, hobeto esanda.) Orduan: hizkuntzatik (jaberik gabekotik!) irtete/aritze horrek berorrek garamatza inplikazio anarko-abertzale jatorrera.

[ARGI DRONE BAT GABE]

Ideietatik honatago; ismoetatik askozaz honatago. Kolore jakin bateko betaurrekorik gabe. Dena ikusten/sailkatzen/izendatzen duen argi done bat gabe; goietatik dena dakusan argi drone bat gabe.

Behetik.

Esana dut: ez naiz ari ideologia batez/batetik. Ezin ari naiteke. Ez da holakorik sartzen e-estiloan, e-gogoan. Gehienez ere, azpisentiera bat lauso-lasaia (ideologia = gaisentiera zehatz-urduria). Jarrera iraunkor betibatekoak ez du onik egiten. Txindurritua sortzen du, eta ez gorputzean bakarririk; espirituko zain-giharrak minberatzen ditu. Jarrera ideologiko-espiritual gogortu (sendo-gatzatu) batetik ez gara ezertaz ari, ezpada geure buruaz, geure buru-gogoaz. Jarrera jakin bat jarrera bat da, eseriera bat, eta maiz etzanera bat izaten bukatzen du.

Lurra eta hizkuntza. (Patriam? Matriam? Sorterria edo sorlekua?... Bo, lurra eta hizkuntza.) Hondabidean direnak eta ahulerian. Bihotz garbi bat, galdu-gorde pertsonal haundirik gabekoa, haien alde jartzen da. Maitasuna mintzen du, bizitzen du, galdu-beldurrak: *na hora da despedida*. (Gauzak asko aurreratuz beltzean.)

[LURRA BEHEAN, HIZKUNTZA BEHERAGO]

Hizkuntzarena umeek ere badakite. Zer esan besterik? Aditzen diren gauzak: *no*-k indarra omen daukala eta *ez*-ek ez; eta «hori okila da» edo «hau urraburua da», eta «nola da erdaraz?» aditu beharra. Ez opa: ez maite: ez betetzen. Eta *code-switching* deitzen diotena «euskaraz» jardutean bakarrik gertatzen da; gaztelaniaz/frantsesez mintzatzerakoan «dena» gazt./fr. esan behar da, eta ingelesez, berriz, «den-den-dena» ingelesez; ageria da maitasuna eta begirunea –biak!– zeinentzat dauden eta zeinentzat ez. Lurra ere orobatsu; batetik, goitik, goiko agintetik, diruaren logika edo zorarena dago, eta bortxa; bestetik, baina bateratsu, gizabanako garai-kideak ez du lur hau maite: ez du euria maite: eguraldia –hemengoarazo neurosigarri bat da: mendi hauek, lehen haunditzat geneuzkanak, koxkortu egin dira: itsasotik neoprenoak bereizten gaitu: betiereko

eguzki-hartze erregarria goستن da, abaro beharrik gabeko izaki guren bihurtzeraino goi-harroturik... Ez dezagun segi. Lurra eta hizkuntza galduan. Maitasun mindu bat.

Hizkuntzatik. Bihotzondo politiko bat, ezinbestean.

HITZAURREÑOIA-4 («nondik»)

Orain mendira noa. Zer da mendira joatea neretzat?, nere hustez?

Eta berehala beharra sumatzen da nere hustez zer den esplikatzeke: atzendua baitago jakinduria hasperendun zahar gurea («haien» jakintza hatsgabea aurrendu ahalean atzendu ere). Banator. Neretzat esan eta behargabeko ezbai gordin asko sortu ohi da jendeen artean, zeren neretzat hori bi eratara aditzen baita: (1) nere ustez, mundu guztiarentzat balio duen ustez, uste orokor-ororentzakoz eta izatezkoz; (2) neretzat bakarrik balio duen ustez, nere kasu soilean. Adibidea: «neretzat hau ona da»; eta xextra hasten da berehala: (1)-moduan ulertzen da (2)-moduan esandakoa: 'nere ustez ona da (izatez, ororentzat)' ulertzen da eta ez 'neretzat (bakarrik) ona da, neri on egiten dit, maitte dut'. Xextrak beroturik, hori esan duena bera ere zalantzan hasten da (2)-eran esan duena zinez ze eratan esan ote duen: bere buruaz ari den ala mundu ororentzat ari den, eta «neretzat ona baldin bada hiretzat zergatik ez ba?» eta hola. Usteak ezustea ekarri du, eta nahastea. Orduan, betor hustea. «Nere hustez»: neu hutsik, eta besteak, ni ez bezalakoak, paretik kendu/hustu eta gero gainera. Ezbai erreak saihestuak daude idatzirako bederen. Behar zen zerbait jakinduria zahar xaretua adabakitzeko.

[HAITZ-BEHEITI METAFISIKO BATETIK]

Mendira joatea zer den nere hustez, gure hustez, non gu garen ni eta nere modukoak. (Nolakoak eta halakoak; zenbat eta hainbat.) Hemen Azpeitian, Haitzbeheitan; nere etsi-herrian: munduan etsitzen laguntzen didan herrian, eta herritik. (Munduko haitz/harri guztien behe/beheiti/azpi/barren/barne guztiekin senidetzen nauen tokian, eta tokitik.) Egia da, ustekabeko egia da, baina hustekabekoa ere bai: beste edozein tokitatik idatz zitekeen liburu hau, baina ez zen liburu hau izango. Haitz-beheiti bateko babes metafisikotik hobea aterako da, hobeki aterako da (nere hustez, nere huste betean) liburu hau, zeinak jakintza deskonturatu mundutar/ideiazko garailea urratu nahi bailuke hizkuntzatik eta bere jakinduriatik.

Jakintza *aspalditik esaten da euskaraz (Mitxelenak ere bazekien zer zen, baina ez zion antzik eman zein etxetako umea zen: «jakintza hori ez du aginte goseak ekarri, jakin goseak baizik»: baita zera ere!); deskonturatu sei urteko iloba ergoiendarrari ikasi diot.*

[OLABEZETA, ABITAIN-ALABIER]

Orain mendira noa, baina *nagi* batek (aiseriazko *nabi* batek), aurretik, Olabezeta baserrira narama, Haitzgoitik partean. Gure gogoenean edo goraintzian (letrazkoan eta ez belarrizkoan) hangoxe gizona dago; 19. mendea da eta seme gaxtearekin dabil iluntzean gurdia bere idiekin hartuta: bere ideiekin ere bai. Bat-batean baztertu eta semea ere bidetik kanpora atera du. Semeak galdetu: zergatik?, eta aitak: sentitu duela nola zaldi zuri bat zetorkion gainera eta hari bidea garbi uzteagatik. Semeak ez du ezer ikusi. Idiak bai, zaldia ez, eta ideiak ere ez. Seme horren semea 20. mendeko e-profeta haundiena bihurtuko da eta uzten du idatzirik ezen hor gertatutakoa dela «logikaren eta irudimenaren arteko nahasteka natural eta harrigarria». (Semearen seme honek ere bere ideiak ditu: zer egingo zaio ba? Gurasoek ez zioten beren euskararik entzunarazi, eta bere hizkuntzarik ezean, bere ideiak ditu. Bestela: hizkuntza meherik ezean, ideia gizenak ditu.) Olabetan, Haitzgoitian, Izarraitz bidean. Hemen dena ez da Lohiola izan metafisiko-espirtualki; gehiago: hemen sekula

ez da izan Lohiolako lohi ekumeniko horren barru-arrastorik ia; ez zinetan eta benetan bederen. Hemen beste zera bat egon da, eta hortik ari naiz hemen. Hemen haitzezko orrazi batek orraztu ditu egonezin zaharrek sortutako kalparrak; haitzezko bezain hitzezkoak (kontuz!). *Haitzezko Hitz Hau* entzuten dugu guk, beste hark *Harrizko Herri Hau* (barkatu, atx!, literaturkeriok) ikusten zuen leku hutsean. Baina, baina... zertarako hainbeste kopla lohiarekin?

Orain bai: mendira noa. Kostata; nagiak bota ezinik eta uste-husteen luzagarriei ederretsita gehitxo egon eta gero. Izarraitzera noa ni ere. Alberka ondotik hasi eta gora. Zer da mendira joatea nere-gureztat? Da bizirik gaudela jakitea. Bide horretan gora, Abitainera iristen gara, hilerria, eta Abitaingo hilerria behean utzi beharra dago. Hemen mendira joaten nara, joaten gaiz, biziari (bizirik egoteari) buruz zalantzak harpatzen gaituelarik. Abitain hor behean dago, hilerria oinpean hartzen dugu: bizirik gaude, galduak ez gara: hildako bat ez da hemen sekula Abitaindik gorago ikusi. (Bere heriotzaz jabetutako hildako bat, esan nahi nuke, ez hil-berri bat.) Orain seguru gaude gure bizirik-egoteaz. Izerdi honek merezi zuen.

Gorago, babes-bide metafisiko honetan, Alabier izeneko baserria. Azkue (1925): «conozco, es verdad, fantasías de algún chiflado puestas por nombre a algunas casas como *Ala bear* en Azpeitia [gaur hiru silaba ditu: *a-la-bier*] y *Orrezpengo* ‘si ahí no estuvieras’ en Murélag». (Nor da hemen txoropittoa, e!, Don Resurrezion? Utikan!) Oso goiko malkar batean dago basetxe hori. Zer egiten du etxe horrek ezleku horretan? Ume-estiloan: zergatik dago baserri hori hor? Filologo gisa: zergatik itzultzen du Azkuek *Orrezpengo*, baina ez *Ala bear*? Ez baita hain erraza! Izerdia lo-ditzen ari zaigu aldapa jakinduriazko honetan. Arnasa berotzen ari zaigu: *Ala-bier*, gaur bataiatu ezkerro, *Ala-ber* litzateke; hemen *bier* esaten zen garaian egingo zen etxe hori, edo jarriko zitzaion izena, edo ezizena. Eta irudikatzen dut etxe horren izena idazkun batean horrela: *Halabehar*, edo *Halabehar Basetxea*, eta askotxo da eta gehitxo da, ezta? (Horrek, hola, filosofia dirudi, edo are okerrago: literatura.) Halabehar hori etxe horretan bizi al da? Eta zer da: ikazkin beltza edo artzain zuria? Jakina: beste hitz batzuekin: hor dago kausalitatearen eta kasualitatearen arteko topeka

zaharra eta betikoa. *Le hasard* eta/edo/ala *la nécessité* (Monod). «Etxe hori hor, e!?» «–Halaxe beharko zuen! / –Hala behar! / –Alabier.» Topeka hori ez du inork irabazten, ez galtzen. Ez gara inongo aldetara etzaten. Aldapako eskola honek, eskola malkartu honek, erakusten du ez batera ez bestera ezkondu gabe geure baitan egoten. «Hala beharko zuen.» Zer esaten dugu? Horixe eta berori. Hemen ikasten da, ikasi dugu, odolik gabe baina izerdiarekin ikasi dugu hizkuntzatik geure barruak arintzen, mundutik eta bere ideietatik barru horiek korapilatu/zorapilatu beharrean.

Gorago, ur sakratuak. Nahargundik, eta beheragotik ere, itsaspegia edo itsasoaren ikuspegia. Itsasoa bere urarekin. Handik gatoz. Aspaldi zen hori. Orain, oroigarri moduan, hango haizea dator hona («beheko haizea») eta jotzen du hemen komeni denean gesaltzea zenbait koskor eta astunune gogor. Nahikoa da. Ez nara, ez gaiz, itsasoari begira egon zale (bai errekarri), eta bai itsasoan egon zale. Gorago eta gorago, gure ur sakratuena dago: Hazketa (Haitz-barnen/Hazparden ere bada Hazketa, eta hark oroitarazten digu zertan den jakinduria hasperendun zahar gurea). Hango urak ekarriko gaitu atzera geure onera. Ez al gaude ba ondo? (Ikasiago eta desikasiago.)

Eta hortik gora gailurrak. Harri-irudia (santu katoliko lohia) eta antena (apostolu katodiko lohiagoa). Zeruarekin eta beste urruti batzuekin bat egiteko zerak. Muzin egiten diegu eta beherantza gatoz. Alabier pasa, Abitain pasa, eta atzera zalantza esistentzialek bizi gaituzten beheiti honetaraino.

[ESKOLA LIBRE BAT PENDIZEAN]

Liburu hau pendizeko eskola horren abaropean idatzi da. Izerdia xukatu eta gero, egia esan behar bada; baina izerdi hori gogo-bihotzetan likatu delarik. Eta bestalde, liburu hau metafisiko-espiritualki idatzi da Abitain eta Alabier arteko bordaren batean/batetik; zer den ez dakigun herioztaren eta zer den gutxiago dakigun halabeharraren artean egindako gogo-jardunen bildumatzat jo liteke.

Mendira goaz hemen eskolara: ez eskolatik ihesi.

AURKEZPENA

(«zer»)

Esan nezakeen «dena gezurra da» eta ixilik gelditu. Baina hola ez hitzik egingo zen, ez solasik eta ez jolasik, eta nik jolasa nuen maite. Eta bestalde, zerbait egin beharra dago, zeren ezer egin ezean, ez dago zer eginik eta jai dago.

«Bizitzaren zentzua» aditzen dugu, sartu digute, eta nahastatu gara eta zorapilatu. Kanpotik ekarria da hori, ez da e-gogoa, ez e-estiloa (zeinetan bizitza «aldi» bat baita, eta ez bide bat, eta aldiak ez dezake ukan zentzurik). Badakigu, geurez/geuretik, ezinbestean «zerbait egin beharra dagoela» bizian, bizitzan, bizialdi/mundualdian. Zeren bestela jai dago, esanda bezala, eta gainera ezer ez egite hori, ezer ez egotea bezala, ezin litekeena da. Ezinbeste bat eta ezin bat: geurezkoak, ulertu-ezinik gabeak, garbiak. «Bizitzaren zentzua»: ideien munduko beste izate-uste zikin zorapilagarri bat. Hau ere beste huste bat da, eta ezeztatzen du uste bat, izate-uste bat, ezusterik gabeko uste bat, lehorra, ideiazko-kulturala.

[PENTSAMENDU PROPIOA GERATZEA]

Hau dena etsipen baten umea da. (Liburu hau berau.) Eta irudipen batena ere bai: ez ote duen merezi, alegia, pentsamendu propio bat garatzea.

Bo, uste dut, huste dut, segurtagen bat ere badela: ez du merezi pentsamendu propio bat garatzea, eta etsi-etsian hobe da garatzea.

Pentsamendu propio bat, norberarena, originala eta, nola ez ba?, jeniala. Horixe nahi, horixe uste; eta zenbat-eta nahiago eta usteago, orduan-eta idiotago (zehazki hitzeginez). Berezia izatea da bere-hesia izatea; jeniala izan nahi eta idiota gelditu; halaxe da, eta alde erantzira ere bai, ezetz badirudi ere. «Idiota» gauza honen jatorria grekoa da, eta grekoz zen gizaki pribatu edo partikularra, ez gizarterakoa, horixe adierazten zuen. Norbera; norberbera.

E-gauzan edo e-gogoan ere izan da laineza hori: *bana-banakoa* da hauta edo bikaina; *arraro/arradoa* ere horixe da (*lili arrado bat*, etab.); baina bada hor, hemen, jakinduria sano bat ere: *bitxia* da ona/ederra, eta da bakana, eta harrigarria, eta azkenik barregarria.

Idiota bakan harri-barregarrietarik bat jentotzat hartua izaten da al-dian behin, aldi oso luzean behin; zertarako? eta, esperantza edo uste horretan, mundu oro saia dadin norberaren zera propio eta originaletan, pribatu eta partikularretan; hots, idiotetan, idiotakeriazkoetan.

[«IRITZIRA, ALIRITZI»]

Pentsamendu bat propioa edo norberarena da uste jakin batzuen eta iritzi jakin batzuen multzoa. Usteak ez du izugarrizko izen onik liburu honetatik kanpora ere (sekula ez du izan, eta bai beti ustel-usaina), baina iritziak bai. Iritzia sakratua da munduarentzat, mundu honentzat; iritzi pertsonal-pribatu-norberarena sakratua da; zer esanik ez irizpideak eta irizpenak. Baina hori oso berria da; betikoa dirudi, eta betiko gauzen erdiak bezala, atzo goizekoa da. Neronek ikasi nuen umetan *iritzira* esaten, eta beste leku batzuetan *aliritzi* aditu dut, zein baita gauza bera. «Ez dakit, ez dut aztertu, ez dut argibiderik edo aztarrenik atera, eta beraz, *iritzira* ari naiz» (hau da: *iritzi-ra*). Iritziak, beraz, e-asunto berezkoan, ez du batere balio, edo ez du askorik balio. Gauza putz bat, baina sakratua mundu garaikide garailearentzat.

Kontuz: ez naiz ari iritzia agertzeko eskubidearen kontra, etxean, gizar-tean, ostatuan edo bestela. Nahiago nuke iritzia agertzeko eskubidearen

tokian egia esateko eskubidearen alde egingo balute, baina zer egingo diogu ba? Hemen ari gara ez hainbeste mundutik edo munduko gauzetatik (iritzia agertzeaz edo ez agertzeaz edo zernahiri buruz), eta gehiago ari gara hizkuntzatik, zein baita munduaz aritzeko bezainbat mundu bat sortzeko era bat.

Orduan: putz horixe da munduak opa diona gizaki orori, sakratuki opa ere. Iritzira ez asko jarduteko erakusten zen lehengo etxeetan; gauzea nola den seguru jakin gabe, ez jarduteko hola-ta-hola. Gero jakin genuen, egia da hori ere, jakintza segurua ere iritzia zela gehiena, eta iritzi aldakorren dantza bat, axeri-dantza bat, ezpata-dantza bat ere bai, baina horretarako jakitsuak ezagutu eta nozitu behar izan genituen kultural-kiro, eta haietako bakoitzaren jakintza propioa eta berezia jasan espiritualkiro.

[«EXTINCT»]

Gaxteentzat ematen ditut gehienbat azalpen asko hemen. Eta gaxteen pare dabilizan zaharrentzat. Ez dute sekula aditu iritzira, ez bana-banakoia, eta ez... ezer esatera nindoan. Oi atzentze-galera gurearen oldarra eta lasterra! Hobeto: oi atzentze-galera aspaldikoaren oldar/laster gaurkoa! Eta ez nator negar soziolinguistikora; ezta azkenengo hogeitaz honuztikako iraultzara ere: erdaljasazko iraultza telematiko neurrigabera; irauntza ezinezko bihurtu duen iraultzara. Baina esan beharra dago: hizkuntza extinct batean ari gara, nonahi extinct-aroan sartutako hizkuntza batean; akitaroan, agortaroan. Eta hori batzuek lepotik gora diote, eta guk diogu lepotik behera, barrena eta barrenera. Eta bi adierazte-era horien (lepotik gorako nahiz beherakoaren) arteko topekaren inguruan gehiago aditu nahi izan ezker, sartu Bilatzaile Izugarrian «hualde asju extinct» etaledo «segurola 31eskutik extinct». Aspalditxotik emana zegoen abisua: hemengo gizona, e-gizona, e-gizakia, e-emekia, gaurkoa eta garaikidea, ez dago eta ez zegoen prestatua euskararentzat edo euskararako; galera espiritual batetik datorkio e-gizakiari galera linguistikoan laketzeko jaidura; eskastasun eta ahultasun metafisiko batetik daruma erdaljasan beratzera eta ezarian-baiarian itotzera («sartuko naiz oinak bustitzera, edo belaun-pareraino, gerriraino, leporaino... ea ze

joera»), eta ito egiten da, eta ez dago hitz-soroslerik berba-hondartzatik txistuka ohartaraziko duenik zertaratzera doan eta zertzera doakeen. E-gizakia ez zegoen prestatua e-hizkuntzarentzat (eta ezta, bidenabar esanda, beste asko gauza onentzat ere). Edo prestatua zegoen, baina «besterik ezean»; ez «besterik hezean». Beste nonbait hezetasun bat sumatu ustez hexeagoa, eta hari ederretsi, eta lehengoari hutsiritzi eta lehorritzi: besterik hezean. ♦ «Mucho después me dirías que era una lengua que sólo servía en el campo/ para hablar con la tierra y los animales» («Nieblas en el Izarraitz», 20. mendea, e-profeta belarrimotz batek bere aita belarrimoztaileari).

Aspertzen naiz esplikazio hauekin. Eta ez dakit aurrenik gogoeta hauetan Aspergertzen naizen eta gero neure baita horretan aspertzen, ala naizen aurrenik aspertzen eta gero neure izatean Aspergertzen. Eta okerragoa dena: iritzi-irizpide-irizpen usain haundiegia hartzen diet neure esan-modu hauei. Gauzak badirela, era batera direla, zerbaitegatik direla, eta zikiratze metafisiko hori dena; e-asunto bixi-arinetik barau antzean, antz osoan. Borroka bat latza daroat ni neu iritzi-agertzaille bihurtzearen kontra eta pentsamendu propio bat nere-neurea garatzetik/gatzatzetik itzuri. Borroka horren izerdi-lika antzeman behar zaio, behar litzaioke, liburu honi.

Akitaroa edo agortaroa mundu zabaleko gertakaria da, eta hizkuntza boteredun/boterepeko bakan batzuei ez beste guztiei edo gehienei erasaten die. Hemendik eredutzat hartua izan den katalan hizkuntzaren sendotasuna bera ere gainbeheran eta peko errekaraino hurbiltzen hasia dago. Irakurri diot Juliana Canet (Cardedeu, 1999) instagrammerrari honako hauxe: «els meus nens seran la primera generació que parlarà en castellà tot el rato encara que jo els hi parlaré català sempre» (nere umeak izango dira denbora guztian gaztelaniaz hitzegingo duen aurreneko belaunaldia, nahiz-eta nik haiei beti katalanez hitzegin). Martxa horixe ikusten du gaur (2020 urte hasieran) bere hizkuntza maite duen gazte katalan erne batek. Mundu onetan dijuan martxa/ etzait askorik gustatzen. Neri ere ez. Iduri luke sekula ez bezalako akitar/agortaro batera goazela, zeren hizkuntzak bezalaxe ari omen dira bakantzen txori-klaseak eta landareen erdiak eta... zer ez?

[EZ KOSMETIKOA, EZ ENBORTUA]

Adarkatzen naiz, ezpalkatzen naiz nere jardunean; desbideratzen eta sasitzen. Hariari uko egiten diot; erretenari, ildaskari. Eginahal bat egiten dut horretarako: egia da. Hemen ere e-estilo bati, e-gogo bati segitzen al diot? Ez: gehitxo litzateke; asmatzen ariko nintzateke. Zabalagoa da afera, eta galdera da: mundu ordenaturik ezean, zertarako azalpen ordenadun bat?: zerena litzateke azalpen ordenadun hori?: zer egia litzateke hori?: zer hari aurkitu dugu munduan, ze izatezko hari, esatezko hari bat eskatuko ligukeena? (Galdeketa gogorrean berotu gara.) Ez al litzateke jardun *kosmetiko* bat kosmos ('mundu', baina jatorrian 'ordena') bati buruz jardutea? Hari gorri apaingarri baten pare edo. Bertze gisaz: adarkatzerik eta ezpalkatzerik ezean, esana *enbortua* gelditzen da, zeinak esan nahi baitu (*extinct* belarrientzat ari naiz) gogortua eta baldartua deus egiteko.

Pentsamendu propio bat: iritzi batzuk norberarenak. Ez ote duen merezi. Eraso behar diogu orain iritziari zabaletik eta txokotik; iritziaren izaterari berari bere bihotzean.

[SEGITZEN DUGU IRITZIA DESMASKARATZEN E-GOGO ETA
HIZKUNTZATIK]

Iritzia bere bihotzean da ustea eta irudipena. (*Nere iritiziz = n.ustez = n.iduriz.*) Hori, egonean. Baina eginean zer da?, zer egiten du?, zer da iriztea? Eta da -tzat hartu edo -tzat jotzea, da epaitzea, eta da iruditzea edo uste izatea, eta da, aldi berean, izena ukaitea (*izena du = deritza*). Bihotzean hori. Iritzia, gainera, bere saihets-hezurrean edo hor nonbait, da Prai Bartolome markinar berbagazi haren esanean, *dudia* eta *sospetxia*. Bi esaldi orain prai-gizon honenak: (1) *esan guztiak dudan ta eritxijan iminten ditu*; (2) *eritxiko edo sospetxako gauzia*. Eritxi edo iritziak hor nonbait ditu berekin zalantza, goganbearra, errezelo txarra eta holakoxe zakarrak eta zikinak, eta halere epai baten eta izen baten moduan agertuko da azpian zikinik edo zakarririk ez balu bezala. Epai-itxurak eta izen-itxurak garbiketa bat dakarte, zikin-estaltze bat, zakar-kentze bat, zeren «epai bat» edo «izen bat» *bat* baitira, eta zikinak eta zakarrak ez. Eta «bat» gehiago da

«batzuk» baino, zeren beteagoa baita; adibidez: «arrazoi bat» gehiago da «arrazoi batzuk» baino. (Eta orobat jainko *bat* –Jainkoa–, eta ideia *bat* –Ideia–, eta ekuazio *bat* –Ekuazioa–, eta hola.)

Iritziaren jatorrizko bekatua e-gogoan: oraindainokoa ez da deus; haundiena da iritzi zorioneko horri zeinen aise itsasten zaizkion «on-gaitzak» eta «burua». Eta hemen dago iritzi edo pentsamendu propio edo norberarenaren ezin sendatuzko gaitzetan ikusgarriena.

[ON-GAITZEK EZ-EZIK, BURUAK ERASATEN]

On-gaitzak aurrenik. *On iritzi* da ‘maitatu’, eta *gaitz iritzi* da ‘gorrotatu’; edo zen, ziren, aitzin-*extinct*-aurreko garaietan; maitasunaren e-izen zaharra ez zen *maitasun*, baizik-eta *onirizte* (*on-irizte*), eta gorrotoaren e-izen zaharra ez zen *gorroto*, baizik-eta *gaitzirizte* (*gaitz-irizte*). Onaren alderdia eta gaitzaren alderdia horren erraz itsasten baldin bazaizkio iritziari, esan nahiko du iritzi alderdigaberik nekez izan daitekeela on-gaitzetatik honatagoko munduan, hau da, hemen, non baikaude gu. Eta –hau esan beharrik ere ez dago– on irizteak edo onirizteak (alias, maitasunak) garamatzake iritzi ona agertzera, eta gaitz irizteak edo gaitzirizteak (alias, gorrotoak) garamatzake iritzi gaitza (txarra) agertzera. Edo epai ona edo gaitza; eta izen (izenondo, izenpe, izengain) onerakoa edo gaitzerakoa, eta dena hola.

Eta gu ari gara hemen munduaz deus ez bageneki bezala, ia mundurik ez balego bezala, edo munduak, gure harekiko interes faltagatik, ahan-tzi bagintu bezala. Ez, beraz, munduaren irudira, eta bai hizkuntzaren agindura. Hizkuntza eta mundua ez dira bat. Bi ere ez.

Ez iritzi alderdigaberik. Bai alde-erdi-duna, -zalea, -koa. Ustela. Alde-erdia har dezake iritziak gehienaz, eta ez besterik. «Iritziak erdia ustel» esaten hasi beharra daukagu. Usteak eta ustelak duten hoskidetasunik ez du izango, baina e-gogoak eskatzen digu esatea: Ama Euskarak berak (zerak-norturiko estiloa maite dutenentzat).

Zazpi on-gaitzek zulatzen dute iritzi baten izana.

Fede haundirik gabe, baina anatomian behatoparaziko dugu geure burua (ostera bere). Anatomia emozional ofizialenaren harrian. On-gaitzek

eta maite-gorrotoak igurtzia baldin badago iritzi edo pentsamendu propioaren bizkarra, esan nahiko du bihotzak agintzen diola bere beroarekin, eta buru hotzaren esanerakoa beharko lukeela izatez. Baina sartzen dugu tartetik burua afera honetan, eta hortxe jaiotzen da, e-asunto edo e-gogoaren arabera betiere, litekeen-eta mustrorik mustrokeriazkoena, zeren hor ateratzen zaiguna *buruiritzia* baita (oraindik zeharo galdua ez dena e-hizkuntzan). Buruiritzia da bereustetakoa eta harroa; eta da harrokeria, ustekeria eta lepotik gorako haixea bera. Eta honekin, e-jaunok eta e-andreok, iritziarenak egin du, edo egina duke osotoro edo osotara; pentsamendu (sinestamendu, ideiamendu, epai-ebatzimendu) propio iritxidunarenak egin du; modu errealistagoan, errealistegian: egina behar luke, baldin bageunde Nietzsche jaun hura bezain ahaldunduak eta agintedunduak (buruiritziak?) eta hark bezala baldin bageneuka gizajendearen historia bitan zatitzeko adinako indarra. Ez, xumeagotik beharko du: etsia hartua nago iritziarekin. Norberarenarekin. Edonorberarenarekin. Kito.

Prai Bartolomek, laguntzat harturik daukagun gizon (hizketaz) gatzozpindu jator hark, idazten du, *piestazaliak* (festazaleak) maixeatuz, ezen haiek erakusten dutena dela *jagitasuna*, *arrotasuna*, *burueritxija*, *dotore-rija ta besteen desprezijua*. Horixe eta berori diogu guk hemen norberaren pentsa-sinista-etab.-mendu propioaz, dela bere adar idiotan edo dela bere adar jenialean (berdintsu dio, zeren adarbakarra baita basapiztia, barkatu, etxapiztia hau). Eta dotoreria, hots, dotorekeria, izenetan dago, izendatzeetan («terminoetan», «marko kontzeptual/ideiazkoetan»), zein baita, ikusi dugunez, iritziaren aurpegi nagusietarik bat e-gogoan, eta Prai Bartolomeren argia lagun harturik gehitzen dugu dotorekeria horrek lagun dituela jaikia, harroa, buruiritzia eta besteen gutxieslea izatea.

E-gogoan iritziak duen on-gaitzerako eta maite-gorrotorako grinak erasaten die e-hizkuntzara kanpotik sartutako hitzei ere, azpiko indar edo kutsu baten gisan. Bi adibide: (1) opinio/oponio, esan nahi baitu 'iritzi' eta baita 'maitasun, nahitasun' ere, nik neuk horrela erabiltzen entzuna baitaukat neure belarriz (idatziz, bertso zahar batzuetako ale hau polita da: ark amorio ziran [= zidan] ta nik oponio); (2) argumentu, esanahiz 'argumentu, arrazoi' eta orobat 'maitasun, nahitasun' ere.

[BUKAERA HASIERAN ZEGOEN]

Iritzia (pentsamendu propioa) on-gaitzek zulatzen dute, eta buruak osotara nahasten. Aditu dugu, ulertu dugu, azkenik. Eta zenbat denbora galdu dugun munduari begira! Zenbat alfer-ibili! Eta ibiliaren edo ibilbidearen bukaeran jakiteko ezen hasieran bertan zegoela bukaeran jakindakoa; hau da: hizpidean, hizkuntzan, e-gogoan. Adi genezakeen eta uler genezakeen aurrenik edo aurre hartan. (Nahasmendu batetik gatzoz ordea.)

[BEGIRATZEN DIOT ZINTZOKI MUNDUARI ETA AITORPENTXO
BAT EGITEN]

Baina munduari ere opa behar diogu, aitortu behar zaio bere zera. Dena ez digu hizkuntzak esaten; munduari ere aditu behar zaio. (Zeri buruz den: *la désignation*.) Eta dena ez dago munduan: hizkuntzan ere asko dago. (Zer esan nahi duen: *la signification*.)

Hizkuntza munduan dago eta ez dago.

Mundua hizkuntzan dago eta ez dago.

(Hau ulertzea oso da garrantzizkoa aurrera baino lehen. Edo hobeki: nekez uler litekeela edo baldarki ulertu ohi dela sentitzea da garrantzizkoa. Esana eta izana sasitzen dira, eta nahasten.)

[MUNDUAN: BERETIKKERIAREKIN ETA BURUGINKI]

Orduan –esaten ari ginen–, munduari ere aditu behar zaio. Begiratu behar zaio. Eta munduan, zaharra da gure etsia iritziarekin. (Arrazoiarekin ere bai, edo, hobeki esanda, harrazoiarekin, hots, arrazoi... harrizkoarekin? ez: harrotuarekin. Oi, jakinduria hasperendun zahar eta eder gurea!)

Etsigarria da afera hagitz. Eztabaida liteke haundiaz eta txikiaz; indarraz edo antzeaz; herriaz/hiriaz; homeopatiatz/alopatiatz; mundu biribilaz/zapalaz; bikote/batkote/anizkoteaz; batuaz/banatuaz; larruaz/barruaz; transexu/zisgeneroaz eta zernahi/edoziertaz, eta nor beretik ariko da hutsik egin gabe: bere izaera edo izatetik; berak bizitakotik edo sinetsitakotik (= ezin bizi izandakotik). Beretik beti ere, eta *beretikkeria* bat beti

azpitik duela eta kirats baten eran dariola. (Ez da egundo ikusi txikirik haunditasunik famatzen, ez balarrimotzik motz/falta duen hizkeran mintzatzea goresten, ez iritxidunik iritzigaia gutxiesten, ez sinestunik sineskizuna hutsesten, eta ez holakorik deus ere. Beretikkeria guztiak ez dira hain nabarmenak, eta egin beharreko ariketa da beretikkeria partikularra harrrapatu, estalkipetik ateratzen asmatu, eta galdetzea: «ze esango du ba?»)

Etsi zahar bat daukagu iritziarekin munduan, gure munduan, gure mundualdian; etsi beltz bat, munduak erakutsia (e-hizkuntzari eta e-gogoari aditzen hasi aurretik). Iritziarekin, pentsamendu edo mundu-ikuskerak propioarekin. Neke haundi bat hartzen ari gara hori ikusarazten, zeren munduak nekatzen baitu, hizkuntzak ez bezala.

*Ohartxo bat «aurreiritziaz»: asmakari polita da iritzia gainzuritzeko edo salbatzeko. Txarra eta errespetugabea aurre-iritzia izango litzateke, eta iritzia geldituko litzateke errespetuzko tamaina batean. Iritzia beti «atzeiritzia» litzateke. Eta, bidenabar, aurreiritzian bakarrik legoke epaia (cf. beste hizkuntza batzuetan **prejudice**, **Vorurteil**...), ez (atze)iritzi jatorrean.*

Iritzi propioa beregainki bezain *buruginki* ari da. Burugina da, eta horrek esan nahi du bere buruari begiratzen diona dela (adib. Mogel *aberrats burugin, zeken ta diruzalia*). Eta Azkuek jaso zuen hiztegian (1905) Bizkaiko esan-modu hau: *burugin ona, lagungin txarra*; hau da: ez lagunkoia, ez argia eta ez gizarterakoa da burugina. Burugin idiotakeriazkoa edo burugin jenialtasunezkoa den ez du axola, zeren orobat izan bailiteke burugin jenialkeriazkoa edo burugin idiotatasunezkoa.

Hizkuntza munduan ere badago.

Mundua hizkuntzan ere badago.

(Hau ulertzea errazagoa da, nahiz gutxiagolarinkiago sentitu.)

[IRITZIA ETA EPAIA]

Besterik oraino? Bai: etsi-erakutsi honetan oraindik buruz buru jarri behar ditugu iritzia eta epaia, zeren eskuarki epaia (epaiketa bateko epaia) gogorragotzat hartzen baita iritzi soila baino.

Bi Zirriztuen Esperimentu famatua («double-slit experiment»), fisikakoa, atera zait bidera, gogo-bidera, ustekabeen: ez al dago «naturaren

aldetik» itzurtze bat, arbuiatze bat, iritziztatua/epaitua (ebatzia) izatearen kontra?; hots: ez al dago gure izendatzelirizteekin etsi nahi eza?

Orduan –ari ginen– epaia gogorragoa iritzia baino? Ez da horrela: epaiketako epaian entzun egiten zaio epaituari, baina iritzian, iritzirako iritziketan, ez zaio aditzen iritziztatuari hitzerdi bat ere: ez jende, ez gauza, ez leku, ez abere eta ez harriri. Ez da aditzen, ez dago adimenik, ez dago (Agirre Asteasukoari ikasitako hitzez esateagatik) igerrimenturik, edo oso urria dago. Eta ez dago gogorik, ez dago maitasunik (buruginkeria buruirritzi bat dago). Zein da arazoa?, non dago ezina? Hizkuntza munduan ere ba ez dago ba (aditzeko moduan)! Mundua hizkuntzan ere badago, baina hizkuntza munduan ere badago, munduko zeretan ere badago: esana gelditu da. Orduan?

Geuk ere hobeko dugu umiltzea, zeren aukera egina baitugu hizkuntzari aditzekoa, eta ez jende, ez gauza, ez leku, ez abere eta ez harriri. Mundua hizkuntzan ere badagoelarik (munduko zerak hizkuntzan ere badaudelarik), hizkuntzari aditzerakoan munduari zeharka bederen adituko diogulako uste batek, uste on batek, garabiltzake segurik.

[ERO-NAHASMENA H-M NAHASPILATIK: ARGIGARRI BAT
E-ASUNTOTIK]

Egin daiteke hemen ohar praktiko edo gizalaguntzazko (?) bat; eta praktikoa bezain teorikoa. Eromena, nahasmena, pairamen kudeagaitzerainokoa bederen, maiz iruditu izan zait dela, alde behintzat, M-H harremanaren andeatze edo nahaspilatze bat neurriz kanpoko. Nahaspilatzea berezkoa du H-M ezkontza horrek, fundazionala edo bere egitezkoa, baina neurriak xitzez eta iragaitez ari gara. Ero-nahasi kudeagaitzaren baitan gertatzen bide da segitzen duela hizkuntzak (H) munduan (M), mundu batean, egoten, baina ez munduak hizkuntzan egoten, eta hizkuntza orduan bere gisa dabil, esanahi edo signifikazione batzuekin beharbada, baina zeriburuzko edo designazionerik gabe edo horretan haundizki huts eginez. Hizkuntza bere gisa eta mundurik gabe bezala. Hitzuna ere bere gisa eta mundurik gabe bezala. Hizkuntza hutsetik ari balitz bezala. (Zenbat aldiz aditu dugu, erre-mate txarreneraino irristatu denaz: «buruari buelta larregi ematen zizkion»,

«filosofia gehiegi gustatzen zitzaien»? neuk adituak oraintsu, hau idatzi baino astebetetsu lehenago, bere burua hil duen batez esanak. Eta, bestalde, zenbat matematikari xelebretxo munduan, «mundurik gabeko» abstrakzio eder-ahaltsuenetan goia jo eta munduarekikoan hagitz itsustu-ezinduak?) Hizkuntzak, orduan, leku gehitxo hartzen duke, munduaren eta munduarekikoaren kaltean. (Geuk ere ikusten diogu hemen geure buruari e-eromen edo e-nahasmen batean erortzeko arriskua edo joeratxoa.) Baina e-asuntoren, e-gogoaren edo dena delakoaren adarretik esan genezake hor, ero-nahasmen psikotikoan, iritzira aritze bat dagoela latza, baina oniritzi-gaitziritzi eta are buruiritzirik gabea. Hau laguntza bat izan liteke argitzeko psikosian autoestimazio faltak eta enpatia faltak –bi falta horiek batera ageri baitira maiz!– izan dezaketen erro komun edo baterakoa: «mundurik ezak» berekin duen irizte-galera, on-gaitzezko eta buruzko iritziliriztearen galera (apatialanhedoniarentzat ere balio lezake). Horra beste ekarpen edo erakarpen bat e-asuntotik, gure gizabaita orokorreko nahaspilatze fundazional nagusietako baten ustezko argigarri edo argitzen-lagungarri. (Jakina, edo ez hain jakina: psikopatia «mundurik gabe bezala» baldin bada, beste alde, mutur edo musuan, normopatia «hizkuntzarik gabe bezala» izango litzateke: mundu-onarpen bete-betea, beteegia, lehertua, barrura lehertua.)

[M-H, H-M > MHERA, MHTIK]

Hizkuntzari aditzekoa, beraz, gure aukera. Gure abiaburua? Gure helburua? Ze buru-klase? Eta berdintsu dio, zeren e-hizkuntza/gogoan «burua» esanda ez baita bereizten hasiera eta bukaerarik: zertatiko eta zertarainokorik. *Burutik burura* edo *bururen buru* euskaraz da hasiera-ez-den-hasieratik bukaera-ez-den-bukaerara, edo alde erantzira. Bereizi-behar hori inposaketa bat da MHrena, ez M-H edo H-Mrena, zeren ez baikara ari harreman edo ezkontza horren ezinez orain, baizik-eta MHri buruz, ezinik gabeko MH nagusiari buruz, zeinak esan nahi baitu –zeinari esanarazten baitiogu– hizkuntza nagusiak/ek bere esanahiekin eta mundu nagusiak/ek (munduaren begitarte nagusi ahaltsuak/ek) bere zeriburuzko edo desingnakizunekin osatzen duten agintez; MHTik eta MHeraz mintzo den agintez.

Adibide erraz xinpleño batzuk dakartzat, aurkezpen honetan gaizki ematen ez dutenak: MH garaile agintedunak egin ditu gure antzinako zera batzuk txikitu/ñanotu [arto hitza jenero berri arrotzarentzat gelditu zen, eta bertako zahar edo antzinakoa artatxiki edo artoxehe bihurtu zen, bertakoa gauza txiki edo xehe gisa gelditu zen: gerta zitekeen lehengoak arto izaten segitzea, bere izatearei eustea, eta berria artaundi edo artolarri bihurtzea, baina ez, nola ba?: ahultasun metafisiko gurea zaharra da]; beste batzuk egin ditu ideia/kontzeptu gailen eta garaileetara makurrarazi [(bit)arte edo (g)une bortxatuak izan dira edo Denbora edo Espazioa adierazten duten argitzera derrigorrean, ez zirelarik berez horretarako jai]; edo besterik gabe galbideratu dira [ahizpa oraindik bixi delarik, ezinean bixi ere, begiratuko diegu adibide moduan baterezari (baterez hitzari) eta ezerezari (ezerez hitzari), zelarik aurrenengoa ezdeustasun-hustasun-eztasun zenbatezkoa (galbideratu dena hau da), eta azkenengoa, berriz, zerezkoa edo erabatekoa]. Eta abar, eta apar.

(Ezereza eta batereza, hutsa eta eza –oharra da hau, adibide bat da hau gauzatxu batzuenak– jakintza kulturalak txartzat joak dira eskuarki, baina ez azpiragoko jakinduria ezkultural herrikoi ezbaikariak. Entzun, konparazio batera, Damaso Intzak Arruazun jasotako hau: deus ez: begian on da, sakelian ez. Hemen dagoena da talka/topeka bat letrazko eskultura axaleko goitar hil-astunaren eta hitzezko ezkultura bixi-arin behezalearen artean. Eta segitzen dugu oharrarekin: Ekialdetikako jakinduria zahar hutsarekikoak usteari ezuste eder bat kontrajartzen dio, baina ez gurea bezalako huste ezbaikari osoagoko bat; Tao Te Ching, bat: ontziak buztinez eginak dira, eta haietan ezereza/hutsa da baliozkoena; T.T.Ch., bi: ate-leihoak zulatzen dira etxea egiterakoan, eta haietan hutsa/ezereza da baliozkoena.)

[EZ E-IRITZIRIK, EZ E-PENTSAMENDURIK]

Hau da aurkezten ari garena: etsi dugu iritziarekin: etsi dugu pentsamendu propio bat edukitzearekin. *Oroz etsi behar dizit/ non baitate hobena.* Geratuko dugu pentsamendu propioa. (Ibili-ibili eginda, meditazio era bat izango da?)